



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa  
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

# **DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN OROITIDAZKIA**

**2009**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2 - 3
2. Donostiako Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren epaitzen berri zabaltzea .....	3 - 30
3. Alde pertsonalak eta lan karga.....	30 - 32
4. Alde materialak eta informatika .....	33 - 33
5. Aurkeztutako erreklamazioak .....	34 - 35
6. Izapidetutako erreklamazioak .....	35 - 36
7. Ebatzitako erreklamazioak.....	36 - 38
8. Ebazteke diren erreklamazioak .....	38 - 39
9. Epaitzak zein aldetarantz eman diren .....	40 - 43
10. Auzitegiaren irizpideak.....	44 - 44
11. Aurkeztutako gatazkei buruzko iruzkinak.....	44 - 46
12. Udal auzitegi ekonomiko administratibak konparaziozko eginiko azterketa .....	46 - 48
13. Eskatutako irizpenak .....	49 - 49
14. Ondorioak.....	50 - 50

## 1. SARRERA

Donostiako Auzitegi Ekonomiko Administratiboak urtero aurkezten die oroitza txosten bat Udalbatzako kide guztiei. Oroitza txosten horretan aurreko ekitaldian egindako jardueren berri ematen da.

Donostiako Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jarduerak biltzen dituen oroitza txostena Udalean aurkeztuko da, eta 2009. urtean egindako lanaren erregistroa jaso du.

2009ko abenduaren 31n idatzitako oroitza txostenean 2009. urtean egindako lanari buruzko informazioa jaso da. Halaber, lana 2005eko ekainean abiarazi zenetik hainbat alderdik izan duten bilakaera alderatzeko grafikoak ere sartu dira, hala nola: 2005etik hona egin diren erreklamazioek, emandako epaitzek dakarten erabakiak eta erreklamazioak izapidetzeak eta ebazpenak egiteak dakarren lan karga.

2009an aipatutako jarduera hobetzen jarraitu dugu. Izan ere, jarduera hori da auzitegiaren oinarritzko xede eta eginkizuna. Jasotako grafikoetan ikus daitekeenez, 2009an bilakaera positiboa izan da; izan ere, eta gero ikusiko dugun bezala, erreklamazio asko ebatzi dira. Hala erakusten dute *Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico-Administrativos Municipales* txosteneko datuek. Txosten hori Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek aurkeztu zuen, eta aipatutako datuak sartu dira, Donostiako Udalak haien berri izan dezan.

Auzitegiak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udaleko Araudiak xedatutakoari jarraikiz, bere dituen eginkizunak gauzatzeko egin duen lana aztertu da. Funtsean, arreta nagusia jarri da honako hauei loturiko erreklamazioak ezagutzeko eta ebazteko: kudeaketako ekintzak, likidaziokoak, zerga bilketakoak eta zerga ikuskaritzakoak; bai eta udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sartzeen derrigorrezko diru bilketakoak (bereziki Udal zigorrak jartzen dira, halakoetan) eta Zerga Ordenantzen Proiektuari buruzko txostenekoak.

Donostiako Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa errekurso-egileen eskubideak era eraginkorren babesteko printzipioaren adierazpena da, baina modu independentean funtzionatzen du. Hala dago jasota bi dokumentutan: 57/2003 Legeko (2003ko abenduaren 16koa, Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurriari buruzkoa) zioen azalpenean eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Araudian.

## **2. DONOSTIAKO UDALEKO AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN EPAITZEN BERRI ZABALTZEA**

Zergen arloko berraztertze errekurtsoak ezesteko eman diren epaitzei dagokienez, zerga mota bakoitzean aipagarrienezat jo diren epaitzen berri eman da. Epaitzak, duten espezifikotasunaren arabera aukeratu dira.

Orobat, eta interesdunek jakin dezaten, auzitegiaren epaitzek dakarten erabakia udalaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Erabaki horiek doktrina izango dira, gero.

## Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

- 110. epaitza, 2009ko otsailaren 19koa, aurrez emandako foru ebazpenaren ondorioak onartzen dituena:

Erreklamazio horretan, hau da auzigaia: berraztertze errekurtsoaren ezetsi izana. Ezespen hori ea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu da, bai 2008ko ordainagiria zuzentzea ezetsi izanari dagokionez, bai 2005. eta 2007. urteen bitarteko ordainagiri batzuk itzultzea ezetsi izanari dagokionez. Hona hemen Udalaren ezespenearen oinarriak: zergaren zortzapen eguna, 2008ko urtarrilaren 1a; balio katastralaren aldaketa egin den eguna, 2008ko irailaren 1a; eta ondasunen aldakuntza fisiko, ekonomiko eta juridikoak gertatzen diren aldiaren ondoko aldiaren direla eraginkor.

2008ko ordainagiriari aurka egiteari lotuta, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioa Aldundiak ezarritako balio katastralaren gainean kalkulatu da, balio hori baita zergaren oinarria. Hala xedatzen du Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzak, 16. artikuluan: «Zerga horren oinarria ondasun higiezinaren balio katala izango da».

Kasu horretan gauzatu diren jarduerak aldakuntza fisiko, ekonomiko eta juridikoei lotuak diren ala ez ebazteko, honako hau xedatzen du gai hori arautzen duen ordenantzak, bere 26. artikuluan: «Zerga honetan xedatutako ondorioetarako, aldaketatzat joko dira honako ekintza hauek: a) Fisikoak: eraikinak egitea eta lehendik daudenak zabaldu edo eraitea, guztiz zein zati bat. b) Ekonomikoak: higiezinaren erabilera eta helmuga aldatzea, betiere ordena fisikoko aldaketarik ez dakarrenean. c)

Juridikoak: 7. artikuluan aipatutako eskubideetako edozeinen titulartasuna eskualdatzea edo eratzea, ondasun higiezinak bereiztea edo banantzea eta ondasun horiek taldekatzea.

Aipatutako artikuluan adierazitakoaren eta Aldundiak gauzatutako egintzaren arabera, eztabaidagai duguna ez da 26. artikuluan azaldutako aldaketa fisikoa, ekonomikoa edo juridikoa (eta, Udalak dioenez, hurrengo alditik aurrera eragina izango du); 2008ko ordainagiriaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoaren onirizpena da.

2008ko irailaren 1ean ezarritako balio katastralaren aldaketa zein egunetik aurrera izan behar den eragingarri ebazteko, berraztertze errekurtsoa baietsita, honako hauek egin dira: interesdunak berraztertze errekurtsoa jarri zuen Aldundian 2008ko ekainean; berraztertze errekurtsoa ekitaldi hartako borondatez ordaintzeko epearen barruan jarri zen; eta Zergen arloko Foru Arau Orokorraren 230. artikuluan honako hau dago xedatuta: «Aldian behin iraungitzen diren eta era kolektiboan jakinarazten diren zorrak direnez, errekurtsoa ordaintzeko borondatezko aldi jar daiteke edo, bestela, hilabeteko epean, aipatutako aldia bukatu eta hurrengo egunetik aurrera». Hori guztia ikusita, eta kontuan izanik likidazioari epe barruan egin zaiola aurre, ebazpena noiz ebatzi zen alde batera utzita, ebazpena eraginkor izan behar da aurka-egitearen xedearen gainean, hau da 2008ko ordainagirian. Hortaz, jotzen da egokia dela aurten ezarritako 250.844 €-ko balio katastralaren arabera, eta aterako den 437,24 €-ko kuotaren informazioa aintzat hartuta, likidatu behar den 2008ko ordainagiria zuzentzea.

Diru sarrerak itzultzeko eskaerari dagokionez, lehendabizi, jo da Aldundiak errekurtsoa baietsi izanaren irismenak balio katastralaren

zuzenketari beste ezeri ez diola eragiten, Auzitegi Gorenak 2004ko urtarrilaren 20ko epaian emandako irizpenari jarraikiz. Udalak hartu behar du eskaera horren gaineko erabakia.

Bidegabeko diru sarreraren arloan, beti bereizi izan dira bi egoera juridiko. Alde batetik, izatezko akatsetatik, akats material edo aritmetikoetatik eratorriak izango lirateke; gaur egun, itzulketa eskatzeko eta lortzeko epea lau urte da. Eta, bestetik, zuzenbideko akatsetatik eratorriak (akats horien pean erori da likidazio egintza); sarrera horiek itzultzeko, lehendabizi, aipatutako likidazio egintzari aurka egin behar zaio nahitaez, deusezta edo alda dadin. Horren emaitzatik etorriko da bidegabe ordaindutakoaren itzultzea.

Zergen Foru Arau Orokorreko 228. artikuluan honako hau dago xedatuta, diru sarrerak itzultzeari buruz: «Okerreko sarrera egiteko erabili zen zergen aplikazioari edo zigorren ezarpenari buruzko egintza irmo bihurtzen denean, hura itzultzeko eskatu ahal izango da bakarrik egintzaren berrikuspena eskatuz edo sustatuz, foru arau honek 223. artikulua a), c) eta d) letretan jasotako berrikuspen prozedura berezietako baten bidez eta 246. artikuluan araututako aparteko berrikuspen errekursoaren bitartez.».

227. artikuluan honako hau ezarri da: «Erreklamazioaren ebazpena edo egintza eman duen organoak edozein unetan zuzen ditzake, ofizios edo interesdunak eskatuta, akats materialak, izatezkoak edo aritmetikoak, betiere preskripzio epea igaro ez bada». 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, preskripzio epea lau urte izango da itzulketak eskatzeko eskubidea erabil dadin. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2005., 2006. eta 2007. urteetako ordainagiritako diru sarrerak itzultzeko eskaera hau aipatutako Zergen arloko Foru Arau Orokorreko 228. 3) artikuluan egintza irmoei buruz araututakoaren barruan sartzen da, zehazki. Egintza irmo horietan itzulketa eska daiteke soilik akatsak zuzen

daitezen sustatzen bada. Legezko kasu hori aipatzen da azaleko zenbakizko akats bati buruzko berraztertze errekurtsoari lotuta Aldundiak baietsitako erreklamazioan. Gai horren inguruan bada, aspaldidanik, jurisprudentzia doktrina sendoa. Auzitegi Gorenak ezin konta ahal epaitan jaso du; besteak beste, 2007ko urriaren 8koan. Eta doktrina zuzentzat jo da honako hau xedatzen duena: «Bidegabeko diru sarrerak itzultzeko bost urteko epea aplikagarri da soilik ordainketa bi aldiz egin denean edo izatezko akats nabarmena egin denean; baina ez zuzenbidezko akatsak egin direnean». Beraz, preskribatuta ez dauden ordainagiriak itzulgarritzat jo behar dira.

Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, eta aipatutako doktrina eta xedapenei jarraikiz, honako hau erabaki da: baiestea Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2005. eta 2008. urteetako ordainagiriaren diru sarrera bidegabeak itzultzea ezetsi izanaren aurka egindako erreklamazioa; agindua ematea ekitaldi horretarako 250.844 €-tan ezarritako balioztatze katastrala eta 437,24 €-ko kuota duen beste batekin ordeztu beharreko 2008ko ordainagiria deusezta dadila; eta agintzea oraindik preskribatu gabekoak diren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriaren proportzionalak diren sarrerak itzul daitezela.

- 461. epaitza, 2009ko urriaren 15koa, fundazio bat zerga ordaintzetik salbuesteko, bere berariazko araudia aplikatuz:

Erreklamazio horretan, hau da auzigaia: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzetik salbuesteko eskaera ezetsi izana. Ezespen hori ea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu da.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzako 10. 8) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek daude



salbuetsita: «Interes orokorreko helburuak izanik erregistroan izena emanda dauden eta 3/2004 Foru Arauan eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten fundazioen titulartasuneko ondasunak; fundazio horiek, hala ere, aipatutako zerga erregimenari loturiko betekizunak eta kasuak bete behar dituzte. Ez dira salbuetsita izango sozietateen gaineko zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoen ondasunak».

3/2004 Foru Arauak (2004ko apirilaren 7koa, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoa) honako hau xedatzen du bere 17. artikuluan: «Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita izango dira irabazi asmorik gabeko erakundearen titulartasuneko ondasunak, salbu Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei loturikoak. Eta, horren ondorioetarako, 9. artikuluan honako hau ezarri da: «Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita daude honako ustiapen ekonomiko hauetatik datozen irabazi asmorik gabeko erakundeek lortutako errentak: Beren helburu edo xede berariazkoa betetzeko lanean garatuko diren ustiapen ekonomikoetatik datozenak. Salbuetsita dauden ustiapen ekonomikoen edo irabazi asmorik gabeko erakundearen xedea edo estatutu helburuak betetzera bideratutako jardueren laguntzaile edo osagarri soil diren ustiapen ekonomikoetatik datozenak.»

49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, bere 15. 1. artikuluan xedatutako bera dio 17. artikulua.

30/1994 eta 49/2002 Legeetan jaso diren arauketen analisi konparatiboan ikusi da tokiko zergen arloan salbuespen kasu gehiago ezarri direla. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruz honako hau xedatu zuen 30/1994 Legeko 58.1 artikulua: Gaur egun 39/1988 Legeak (Toki Ogasunak arautzen dituen Legea) xedatutako salbuespenak bere

horretan utzita, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita izango dira fundazioen titulartasunekoak diren ondasunak, betiere ondasun horiek ez bazaizkie hirugarrenei eman kontraprestazio bidez, ez badute loturarik fundazioen xede sozial edo berariazko helburu diren jarduerekin eta ez badira bereziki erabiltzen fundazioaren helburu edo xede berariazkoak ez diren ustiapen ekonomikoak garatzeko. Beraz, aurreko lege erregimena indarrean zegoenean, ez zen salbuespenik ematen hiru kasu garrantzitsutan: a) kontraprestazio bidez hirugarrenei eman zaizkien ondasunak zirenean; b) fundazioaren helburu soziala edo berariazko xedea diren jarduerekin loturarik ez duten ondasunak zirenean; eta c) nagusiki fundazioaren helburu edo xede berariazko ez diren ustiapen ekonomikoak garatzeko erabiltzen ez diren ondasunak zirenean. 49/2002 Legean salbuesteko aukera gehiago ezarri dira; hain zuzen ere, honako hau xedatzen du 15. artikulua: «Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita izango dira, Tokiko Ogasunak arautzen dituen araudian ezarritako baldintzetan, irabazi asmorik gabeko entitateen titulartasuneko ondasunak, salbu Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoekin lotuta daudenak». Hau da, bereziki, azken lege horretan ez da aipatzen kontraprestazio bidez hirugarrenei eman zaizkien ondasunak ez direla salbuetsiko. Horrenbestez, ondasun alokatuak zerga ordaintzetik salbuetsita izango dira.

Eta, horren ondorioetarako, 49/2002 Legeak argitzen du ondare higiezina alokatzea ez dela ustiapen ekonomikoa; zehazki, honako hau xedatzen du 3.3 artikulua: «Lege honen ondorioetarako, irabazi asmorik gabeko entitateek ustiapen ekonomikoa egiten dutela joko da beren kontura ordenatzen dituztenean ekoizpen baliabideak eta giza baliabideak, edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan esku hartzeko helburuarekin. Entitatearen ondare higiezina alokatzea ez da ustiapen ekonomikotzat joko, honako honetan.»

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela eta, Zergen eta Diruzaintzako Zuzendaritza Nagusiak adierazi du zerga ordaintzetik salbuetsita daudela enpresa jarduerekin loturarik ez duten higiezinak edo 49/2002 Legeko 7. artikulua araberaz salbuetsita dauden jarduera ekonomikoak lotuta daudenean. Halakoei lotuta ez dauden jardueretako edo doakoetako higiezinak salbuestean ez da eskatzen haien erabilerak lotuta izan behar duenik helburuak betetzeari. Higiezina jarduera orotatik aske izan daiteke, fundazioaren helburuekin zerikusirik ez duten jarduera ez ekonomikoetan erabil daitezke edo doan emanak izan daitezke. Halakoetan, ondasunak ere zerga ordaintzetik salbuetsita izango lirateke. Hirugarrenei alokatzen zaizkienean ere salbuetsita izan daitezke, 49/2002 Legeko 3.3 artikuluan xedatutakoaren arabera higiezinak alokatzea ez baita jarduera ekonomikoa. Aipatutako arauaren arabera, higiezinak alokatzeagatik ez da zergarik ordaindu behar, kasu batean ere. Alde horretatik, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak 2005eko irailaren 29ko erantzunean (V1940-05 argibide eskaera) honako hau adierazi du: «Ondasun Higiezinaren gaineko Zergapeko egitatea gauzatzearen oinarrian den ondasun higiezina (irabazi asmorik gabeko entitatea subjektu pasiboa izango da) ez badago lotuta entitaterako egingo den ustiapen ekonomikoari, ondasuna zerga ordaintzetik salbuetsita izango da. Beraz, ondasun higiezina alokatzen bada, ez da salbuetsita izango 49/2002 Legeko 15.1 artikuluko salbuespena, errentariak higiezin hori jarduera ekonomikoren batekin lotu duelako, jarduera ekonomiko hori edozein izanik ere, errentariaren jarduera ekonomiko horren etekina sozietateen gaineko zerga edo PFEZari atxikita izan zein ez, eta errentariaren jarduera ekonomiko horren etekina zergapetzen duen zerga pertsonaletik salbuetsita izan zein ez.»

Alderdi horiek Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2007ko uztailaren 18ko epaian (104/2006 errekurtsioa) jaso dira, eta honako hau adierazi da: «ondasun higiezina alokatzen denean (alokatzea ez da joko legez

ustiapen ekonomikotzat), ez du garrantzirik izango errentariak higiezin hori jarduera ekonomiko batekin lotzeak edo ez lotzeak, edozein delarik ere jarduera ekonomikoa, eta errentariaren jarduera ekonomiko horren etekinari edozein zerga pertsonal (sozietateen gaineko zerga, errentaren gaineko zerga edo egoiliar ez direnen zerga) ezargarri izan zein zerga ordaintzetik salbuetsita izan».

..... fundazioak .....(e)n dagoen lokalaren salerosketa eskritura eman du, 2007ko .....ren .....(e)an sinatua. Eskritura horretan jaso dira errentamendu kontratuaren egoera, hamabost urterako, eta horren subrogazioa. Ikusita dokumentu horiek justifikatzen dutela 49/2002 Legeak xedatutako zerga ordaintzetik salbuesteko kasuak biltzen dituen taularen barruan dagoela (Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ihardetsi zion horri, eta aipatutako epaian jaso zen), alegazioa onartu eta zerga ordaintzetik salbuestea erabaki da.

Ordaindutako zenbatekoa itzultzeari dagokionez, 41/2006 Foru Dekretuak (2006ko irailaren 26koa, Zergen arloko Foru Arau Orokorra garatzen duen araudia onartzen duena) xedatutakoaren arabera, uzi hori onartzea erabaki da. Izan ere, honako hau dago xedatuta aipatutako Foru Arauan, administrazio bidez berraztertzearen gainean: ... Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, eta azaldutako xedapenak betez, honako hau erabaki da: 2008ko ordainagirian Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzetik salbuesteko aukera ezestearen aurka egindako erreklamazioa baiestea; zerga ordaintzetik salbuestea, horretarako baldintzak betetzen diren bitartean; eta 1.237,15 euro itzultzea.

Ekonomia Jardueren gaineko Zerga

- 429/2009 epaitza, 2009ko irailaren 17koa, Ekonomia Jardueren Gaineko Zergako bajei buruzko foru erabakiari jarraikiz ordainagiriaren baja onartzen duena.

Honako hau xedatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiko Udal Zerga Zerbitzuaren 2008ko ekainaren 16ko ebazpenak: «Donostiako Udalaren Ekonomia Jardueren gaineko Zergako ordainagiriaren aurka jarritako errekurtsua aztertuta, eta zerbitzu horretan dauden datuen arabera, ez dago jasota aipatutako alta eta baja adierazpenak aurkeztu direnik. *Beraz, 235172Q zenbakidun jarduerari (zerga helbidea Donostian duena, 2004ko irailaren 1ekoa) baja ematea erabaki da...*

Donostiako Udaleko Ekonomia Jardueren gaineko Zergako ordainagiriak —aurka egin zaienak— ... jarduerako ... zenbakiarekin identifikatu dira, eta ordainagiri horiei baja ematea onartu da. Foru Ebazpen horren arabera, ez zen gauzatu zergaren zergapeko egitatea; zergapeko egitate hori «enpresa, lanbide edo arte arloetako jarduerak gauzatze soila» izango litzateke, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileko 1. artikulua arabera. Aipatutako ebazpena Gipuzkoako Foru Aldundiak Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren kudeaketari buruzko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileko 15.3 artikuluan esleituta dituen eskumenen gainean eman zen, eta honako hau xedatzen du: «Berariaz Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio matrikula egin eta gordetzea, ekonomia jarduerak sailkatzea eta kuotak eta kasuan kasuko kobratze ordainagiriak adieraztea.» Horrenbestez, zorra deuseztatutzat jotzea erabaki da.

Bahikuntza fasean den betearazte prozedura deuseztatze asmoari dagokionez, zorra deuseztatutzat joenez, egindako bahikuntzaren aurkako erreklamazioa baiestea erabaki da.

Bahitutako zenbatekoak itzultzea dela eta, 41/2006 Foru Dekretuak (2006ko irailaren 26koa, Zergen arloko Foru Arau Orokorra garatzen duen araudia onartzen duena) administrazio bidez berraztertzearen gainean

xedatutakoaren arabera, uzi hori onartzea erabaki da. Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, eta azaldutako xedapenak betez, honako hau erabaki da: Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ordainagiritako ... euro bahitzeko eginbidea berraztertze errekurtsoa ezetsi izanaren aurka egindako erreklamazioa baiestea; eta kontzeptu hori dela eta ordaindu eta bahitu diren zenbatekoak itzultzea.

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ).

- 26. epaitza, 2009ko urtarrilaren 8koa, EIOZen behin betiko likidazioa egiteko data ikusita, likidazio bat preskribatutzat jotzeari buruzkoa.

Honako hau xedatzen dute 11/1989 Foru Arauak (1989ko uztailaren 5koa, Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duena) eta Zerga Ordenantzak bere 2. artikuluan: «zerga horren zergapeko egitatea da obra edo hirigintza lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea».

Zerga Ordenantzaren 14. artikuluan honako hau ezarri da, behin betiko likidazioaren gainean: «Egin diren eraikuntza, instalazio edo obrak eta haien kostu erreala ikusita, Udalak zerga oinarria aldatuko du, kasuan kasu, administrazio egiaztapen egokia eginez. Horretarako, behin betiko likidazioa egingo du eta dagokion diru kopurua eskatuko dio sujetu pasiboari; edo, hala dagokionean, dirua itzuliko da».

Preskripzioaren alegazioari dagokionez, egiaztatu da 2003ko ....ren ...(e)an, interesdunak Udalari eskatu ziola obra hura lehenengoz okupatzeko lizentzia, eta obra amaieraren ziurtagiria eman zuela, gauzatzeko 860.037,65 euroren aurrekontua oinarri. 2008ko ...ren ...(e)an jakinarazi zen aurka egindako likidazioa.

Horren ondorioetarako, Zergen Foru Arau Orokorraren 65. artikuluan honako hau dago xedatuta: «lau urteren buruan preskribatuko da likidazio egokia eginez zerga zorra zehazteko Administrazioak duen eskubidea».

Auzitegi Gorenaren 2005eko irailaren 14ko epaian (lege intereserako kasazio errekurtsioan emana), honako legezko doktrina hau ezarri zen: «Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren kasuan kasuko behin betiko likidazioa egiteko administrazioak duen eskubidea preskribatzeko epea hasiko da obra bukatuta dagoenean (ez obra hasten denean), eraikuntzak, instalazioak eta obrak egiazki gauzatu direla eta izan duten kostu erreala ikusten direnean». Eta zorra behin betiko zehazteko eskubidea preskribatzeko epea bi egunen artean eten dela adierazten duen agiririk ez denez, alegazioa onartzea erabaki da, Zergen arloko Foru Arau Orokorraren 65 f) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

24.057,28 euroren likidazioa EIOZen likidazioari dagozkion 23.849,49 eurok eta lehen erabilerako lizentziagatiko zergari dagozkion 207,79 eurok osatzen dute. Lizentzia .....ren ...(e)an eman zen, eta egun hartatik aurka egindako likidazioaren berri eman zen egunera arte ez da igaro lau urteko preskripzio epea. Hori ikusita, tasa likidatzeko eskubidea ematea erabaki da.

Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, eta azaldutako xedapenak betez, honako hau erabaki da: 2008ko 24.057,28 euroko likidazioaren aurka jarritako erreklamazioa baiestea; EIOZen 23.849,49 euroren zenbatekoa deuseztatzea; eta lehen erabilerako lizentziagatiko tasari dagozkion 207,79 euro likidatzea egokia dela.

- 463. epaitza, 2009ko urriaren 15ekoa, zerga tasa murriztua aplikatzea onartzen ez duena.

Erreklamazio horretan, hau da auzigaia: berraztertze errekurtsua ezetsi izana. Ezespren hori ea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu da. Interesdunak soilik EIOZen likidazioa kalkulatzeari egin dio aurre. Beraz, ez da eztabaidatu Kartografia Eguneratzeko Tasako 953,83 euroren likidazioarekiko adostasuna.

Erreklamazio hori aztertzeko egin den espedientean, eraikina eraikitze proiektuaren barruan, *proiektuaren laburpena* izeneko dokumentua dago, eta, dokumentu horretan, 5.123.658,27 euroko gauzatze aurrekontua izan dela adierazi da.

Zergaren oinarria 3.989.792,70 euro izateari buruzko alegazioari dagokionez, alegazioetarako aldiaren eman diren agirien artean ez dago gauzatze aurrekontuarekin (alegia, zergaren oinarria) obraren kostu erreal eta eraginkorra, aurka egin zaion likidazioan aplikatutako 5.123.658,27 euro izan beharrean, 3.989.792,70 euro izan behar dela dioen egiaztagiririk.

Horren ondorioetarako, honako hau xedatu da zerga oinarria arautzen duen EIOZen Zerga Ordenantzako 10. artikuluan: «Zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta eraginkorra izango da; eta, horren ondorioetarako, hala joko da gauzatze materialaren kostua. Ez dira zerga oinarrian sartuko honako hauek: BEZa eta antzeko zergak, tasak, prezio publikoak eta gainerako ondare prestazio publiko lokalak, lanbide ordainsariak, kontratistaren enpresa etekina ez eta gauzatze materialaren kostua zorrozki barne hartuko ez duen beste edozein kontzeptu ere». EIOZen likidazioan jasotako gauzatze aurrekontua 5.123.658,27 euro da; hau da, kalkulua egiteko ez da oinarri hartu 7.072.697,89 euroren aurrekontua (lehiaketarako hasierako aurrekontua),



ez eta 5.507.509,85 eurorena ere (kontratuaren aurrekontu orokorra gehi BEZa). Kalkulua egiteko oinarritzat 5.123.658,27 euroren aurrekontua hartu da, alegazioetan adierazitakoa. Eta alegazioetarako aldiari ez da egiaztatu gauzatze aurrekontua 3.989.792,70 euro izan denik. Horrenbestez, alegazio hori ezestea erabaki da.

Likidazioan urbanizazio kapitulua —164.421,57 eurokoa— eta segurtasun eta osasun kapitulua —59.752,49 eurokoa— sartuta daudela egiaztatu da. Halaber, aipatu Ordenantzako 10. artikuluan xedatutakoarekin bat eta jurisprudentzia doktrinaren irizpideari (besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2002ko uztailaren 15eko epaia) jarraikiz, likidazioan partida horiek sartzea ez dela egokia erabaki da. Beraz, EIOZeko zenbateko likidatua ez dela zuzena jo da, eta zerga oinarriari 224.174,06 euro kendu behar zaizkio.

Karga tasa aplikatzen den % 5en ordez % 2,5 ezartzeari buruzko alegazioa dela eta, Zergari buruzko Zerga Ordenantzaren eranskinean, askotariko karga tasak arautzen dituenean, honako hau xedatu da: «B) irakaskuntza orokorra: ikastetxeetan, hezkuntza sistemako askotariko maila, ziklo eta graduetako irakaskuntza, edozein delarik ere haren egitura, haurtzaindegi (haietan hasten da), haur hezkuntza, derrigorrezko hezkuntza, goi mailako hezkuntza, lanbide heziketa, heziketa berezia, gradu ertaineko hezkuntza, unibertsitateko hezkuntza eta horiek legez ordezkaturiko dituztenetakoa.»

Egindako alegazioetan eta eraikuntza proiektuan adierazi da eraikina ikertzaile berriei prestakuntza emateko, jakintza zientifikoa hedatzeko eta ... masterra abian jartzeko erabiliko dela. Beraz, ulertzen da eraikina ez dela, oro har, unibertsitate hezkuntzarako erabiliko, baizik eta unibertsitate hezkuntzaren ondoko ikerketa estrategikoko lau arlo nagusietako programa eta helburu berariazko eta espezializatueterako. Eranskinean adierazitako % 2,5eko karga tasa murriztua era hertsi eta

zorrotzean arautu da irakaskuntza mota bakoitzean (irakaskuntza orokorrean, beti ere). Orobat, jo da ... masterra, ikertzaile berriei prestakuntza ematea eta ezagutza zientifikoa hedatzea ez direla irakaskuntza orokor eta ez direla sartzen Zerga Ordenantzaren eranskinean zehazki jasotako askotariko irakaskuntza moten artean. Horrenbestez, alegazioa ezestea erabaki da.

Ustiapen termiko edo elektrikoko sistemak sartzeagatik % 95eko hobaria aplikatzeari buruzko alegazioari dagokionez, honako hau xedatzen du Zerga Ordenantzak bere 72. artikuluan: «kuotaren % 95eko hobaria eraikin, instalazio edo obren alde, eguzki energiaren ustiapen termiko edo elektrikorako sistemak ezartzera bideratuko duten aurrekontuaren zatiaren gainean. Hobari hori aplikatzeko baldintza bat bete beharko da: beroa ekoizteko instalazioetan Administrazio eskudunaren kasuan kasuko homologazioa duten kolektoreak sartu behar dira.» Egiaztatu da alegazioetarako aldian eman diren agirien artean ez dagoela egiaztagiririk bere alegazioa Ordenantzaren 7. artikuluan ustiapen termiko edo elektrikoko sistemak sartzeko kasuaren barruan sartzen dela egiaztatzen duenik. Horrenbestez, alegazioa ezestea erabaki da.

Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, eta azaldu eta idatzitako xedapenak eta doktrina betez, honako hau erabaki da: 2009ko likidazioko EIOZi dagokion 256.182,91 euroren zenbatekoa berraztertzeke errekurtsua ezetsi izanaren aurka jarritako erreklamazioaren zati bat baiestea; 244.974,21 euroren likidazioa zuzentzea, % 5eko karga tasaren gainean kalkulatu baita 4.899.484,21 euroren gauzatze aurrekontua; eta 224.174,06 euro deskontatzea zerga oinarritik.

Hiri-izaerako lursailen balioaren igoyeraren gaineko zerga.

- 385. epaitza, 2009ko irailaren 17koa, errentariak atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzeko eskubidea berresten duena.

Erreklamazio horretan, hau da auzigaia: berraztertze errekurtsoa ezetsi izana. Ezespen hori ea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu da.

...../98 epaiketa adierazle arrunta 1964ko Hiri Errentamenduen Legeko 48. artikularen arabera gauzatutako atzera eskuratzeko eskubidearen alde egin zen, eta usufruktua ebaztera eta birsalmenta eskritura ematera kondena zedin eskatu zen. 1999ko .....ren ..(e)ko epaia, baiestekoa izan zen. Apelazio errekurtsoa jarri zen, eta Probintzia Auzitegiak ezetsi egin zuen 1999ko .....ren ....(e)ko epaian. Kasazio errekurtsoa jarri zen, eta Auzitegi Gorenak ezetsi egin zuen 2006ko ....ren ...(e)ko epaian. Errentariak atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzeko zuen eskubidea eta egindako gainerako alegazioak aztertu ziren epaian, eta errekurtsok ez zuela tokirik erabaki zen. Egiaztatu da Auzitegi Gorenaren epaiak, Donostiako Probintzia Auzitegiaren epaiaren aurkako kasazio errekurtsoarene ezespeneak, ez zuela baliogabetu inolako ekintzarik, eta errentariak lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeko duen eskubidea berretsi zen.

Gai horri buruzko jurisprudentzia doktrinan adierazi da atzera eskuratzeko akzioa gauzatzeko (Kode Zibileko 1.506. artikulutik 1.525. artikulura bitartean arautua) baldintza bat bete behar dela: jakin behar da ea salmentak atzera eskuratzailerik izan duen. Hori jakin behar da, baina, eginda dagoen salerosketa denean, eta salerosketa horretan jabetzaren eskualdatzea tradizioz egin bada; ez da nahiko izango kontratua hobetze soila. Atzera eskuratzeko akzioa jabetzaren eskualdatze kontratua burutzetik sortzen da. Aukera hori denbora eta forma egokian gauzatu zen 2008ko .....ren ...(e)an, eta salerosketa kontratua hobetzea ekarri zuen. Hortaz, une hartan, salerosketa kontratua hobetu zen; hau

da, kontratua burutu zen, finkaren jabetza eskualdatu baitzen eskritura publikoa ematearen bidez, 2008ko .....ren ...(e)an, eta interesdunek sinatuta.

Sortzapenaren gaineko Hiri Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Ordenantza Fisnaleko 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz, 2008ko .....ren ...(e)an izan zen sortzapena: *Lur sailaren jabetza gizaki bizidunen artean edo norbaiten heriotzak (eskualdaketaren garaian gertatu behar du) eraginda eskualdatzen denean, bai dohainik, bai ordainduta. Jabetza mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzen denean [...].*

Zerga Ordenantzako 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz, zuzenbidearekin bat dator ..... zergaren subjektu pasibotzat hartzea, hau baitio: *Hauek izango dira zergadun izaerako subjektu pasiboak: Lurrak eskualdatzekoan edota jabaria mugatzen duten gauzekiko eskubideak eratzekoan, kostu bidezkoak izanez gero, lurra edo gauzekiko eskubidea ematen duen pertsona fisikoa, juridikoa, oinordekoa, jabetza komunitatea nahiz beste edozein erakunde, izaera juridikorik ezan ez arren unitate ekonomiko bat edo ondare banandu bat eratzen duena baldin bada.*

Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, azaldutako xedapenak betez, eta Auzitegi Gorenaren epaia ikusirik, honako hau erabaki da: Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zergaren 2009ko likidazioak —guztira 734,32 euro— berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka egindako erreklamazioa ezestea.

Hirigintzako zehapen bat betearazteko prozedura

- 430. epaitza, 2009ko irailaren 17koa, egintzen betearaztea auzitegi baten erabakiaren mende jarri ahal izatearen bidez tutoretza judiziala betetzen dela dioena.

Erreklamazio horren asmo bakarra da eten dadila 2009ko hirigintza zehapeneko premiamendu probidentzia betearaztea.

Zehapena irmoa da administrazio bidean. Udalak likidazioaren borondatezko aldia jakinarazi zuen 2009ko .....ren ...(e)an. Administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu da zehapena ezarri izanaren kontra. 2009ko .....ren ...(e)an premiamendu probidentzia eman zen. Betearazte prozedura hori izapidetzean, ez da betearazte egintzarik eman, premiamendu probidentziaz geroztik. 2009ko ....ren ...(e)an, auzitegiari eskatu zaio kautelazko neurritzat eten dadila Administrazioarekiko .../2009 auzi errekurtsuan aurka egindako egintza betearaztea. 2009ko ...ren ..(e)an, auzitegi honi eskatu zaio eten dadila betearazte prozedura betearaztea.

Zehatze Ahalaren Prozeduraren Arautegiko (1398/1993 Errege Dekretua) 4.5 artikuluari jarraituz, *legeek eta arautegi horrek agindutako eran eta inguruabarretan baizik ez dira betearaztekoak izango zehapenak.* Konstituzio Auzitegiak, 78/1996 Epaian (1996ko maiatzaren 20koa), hauxe dio: *egintzak betearaztea auzitegi baten erabakiaren mende jartzeko aukera emanek, eta auzitegi horrek —behar den informazioarekin eta kontraesanarekin— etetearen gainean ebatziz, betetzen da tutoretzako eskubidea. Tutoretza horrela betetzen bada, logikoa da ulertzea erabaki hori hartu bitartean ezingo dela erabakia galarazi egintza gauzatzuz, hori eginez gero Administrazioa epaile bihurtuko bailitzateke.*

Auzitegi Gorena, 2004ko urriaren 5eko, 2005eko martxoaren 7ko eta 2005eko apirilaren 14ko epaietan (zehapenak betearazteari buruzkoak), bat dator Konstituzio Auzitegiak ezarritako ildoarekin: *Administrazioak ezin ditu zehapenak betearazi, harik eta Administrazioarekiko auzibidean etetearen eraginkortasunari buruzko ebazpena onartzen den arte.* Eta

Audientzia Nazionalak, 2007ko uztailaren 9ko epaian (398/2006 Errekurtsoa), honako hau dio: *Ezarritako zehapena ezin zen betearazi harik eta, likidazioaren aurka egin eta etetea eskatu zenez, Jurisdikzio Aretoan hori ebatzi ahal izan arte. Beraz, garbi dago ezen, bien bitartean, ezin zela zehapena betearaztea deklaratu.*

Gertaera horiek guztiak eta azaldutako doktrina ikusirik, hau da erabakia: 50.000 euroren hirigintza zehapenaren premiamendu probidentzia betearaztea etetea, harik eta Udalak jakin dezan arte epaitegiak zer erabaki ematen duen zehapena ezartzeko 2009ko ....ren ....(e)ko ebazpena eteteari buruz.

Jabari Publikoa Okupatzeagatiko Tasa,

- 222. epaitza, 2009ko maiatzaren 14koa, tasa ordaintzeko betebeharraren sorburua jabariaren erabilera dela dioena

Erreklamazio horretan, hau da auzigaia: berraztertze errekurtsoa ezetsi izana, hala aldiaren kalkuluari dagokionez, nola tasarekin zergapetu beharreko azalera okupatuari dagokionez. Ezespen hori ea zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertu da. Ezespenaren oinarritzat hartu zen Bide Publikoetako Zerbitzuaren 2008ko ....ren ..ko txostena, okupazio horien berri dakarren udal kontratistaren 2008ko ....ren ...ko txostenean oinarriturik izenpetua. Txosten horrek dioenez, lehenengo fasean, 2007ko okupazioa martxoaren 26tik ekainaren 4ra 179,02 m<sup>2</sup> izan ziren; ekainaren 4tik 8ra, 130,02 m<sup>2</sup>; eta ekainaren 8tik uztailaren 2ra, 49 m<sup>2</sup>. Bigarren fasean, 2008an, urtarrilaren 5etik 21era 113,50 m<sup>2</sup> izan ziren; urtarrilaren 24tik martxoaren 18ra, 73,50 m<sup>2</sup>; urtarrilaren 24tik otsailaren 18ra, 63 m<sup>2</sup>; eta 2007an, ekainaren 4tik uztailaren 2ra, 91 m<sup>2</sup>.

Hirugarren fasean, otsailaren 18tik martxoaren 18ra, 119 m<sup>2</sup>. Laugarren fasean, martxoaren 8tik apirilaren 10era, 94 m<sup>2</sup>-tan.

Auzitegiko idazkariak, ikusita alegazioak eta obra zuzendu zuen arkitektoaren egiaztagiria —interesatuak ekarria—, udal zerbitzu teknikoari eskatu dio beste txosten bat egiteko. 2009ko ...ren ...an, udal zerbitzu teknikoak hemezortzi argazki eman zituen, okupazioaren datak zituztenak. Orobat, aurreko txostena —egin beharreko likidazioetarako oinarri izan zena— zuzendu zuen: lehenengo, bigarren eta laugarren faseetako okupazio egunak gutxitu zituen, eta lehenengo faseko 130,02 m<sup>2</sup>-ak zuzendu zituen, bigarren faseko 91 m<sup>2</sup>-ekin, datuak hauek izanik:

*Lehenengo fasean, okupazio datak izan ziren 2007ko martxoaren 26tik ekainaren 4ra, 179,02 m<sup>2</sup>-tan; 2007ko ekainaren 4tik 30era, 49 m<sup>2</sup>-tan; eta hesiak kendu zituzten. Berriz jarri zuten 2008ko urtarrilaren 5etik 24ra, 113,50 m<sup>2</sup>-tan; eta 2008ko urtarrilaren 24tik martxoaren 18ra, 73,50 m<sup>2</sup>-tan. Bigarren fasean, 2007ko ekainaren 4tik 30era, 94 m<sup>2</sup>-tan, eta hesiak kendu zituzten. Berriz jarri zuten 2008ko urtarrilaren 24tik otsailaren 18ra, 63 m<sup>2</sup>-tan. Hirugarren fasea, 2008ko otsailaren 18tik martxoaren 8ra, 119 m<sup>2</sup>-tan. Laugarren fasean, 2008ko martxoaren 8tik apirilaren 7ra, 94 m<sup>2</sup>-tan.*

Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatiko Tasak arautzeko Zerga Ordenantzako 3. artikuluan, ondorengo dago hau ezarrita, ordainari dagokionez: «tasak ordaindu behar dira udal jabari publikoa eta erabilera publikorako izendatutako beste ondasun batzuk ere erabili edo bereziki ustiatzen hasten denean, alegia, lizentzia ematen den unean bertan, aurretiaz horrelakorik eskatu baten». Hortik ondorioztatzen da erabiltzetik sortzen dela tasa ordaintzeko betebeharra. Horrenbestez, egoki da

likidazioen data zuzentzea, 2009ko maiatzaren 11ko udal txosten teknikoan oinarri hartuta.

Ikusita txosten teknikotik ondorioztatzen dela fase horietan okupatutako zonak ez datozela bat, eta Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatiko Tasak arautzeko Zerga Ordenantzako 8. artikuluan hobariei buruz ezarritakoari jarraituz (hor hobari hau arautu baita: «zerga kuotaren % 50, fatxadak zaharberritzeko lanak direla-eta ezarri beharreko hesi edo aldamiok direla eta, gehienez hiru hilabetez kokatuz gero»), adierazi da egoki dela hobari hori onartzea.

2009ko maiatzaren 11ko udal txosten teknikoan ageri denez, lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren faseak hainbat okupazio zonei buruzkoak dira. Horrenbestez, egoki da % 50eko hobaria aplikatzea bigarren faseko okupazioetan, 91 m<sup>2</sup>-tan eta 63 m<sup>2</sup>-tan; hirugarren fasean, 119 m<sup>2</sup>-tan; eta laugarren fasean, 94 m<sup>2</sup>-tan.

Ondorioz, udal txostenean egiaztatu eta jasotako egitatekin bat, eta azaldutako xedapenak betez, honako hau erabaki da: jabari hesiduneko tasaren 6.586,25 euroren eta 12.353,56 euroren likidazioen berraztertze errekurtsoaren zati bat ezetsi izanaren kontra .....ko jabe elkarteak aurkeztutako erreklamazioa baiestea; likidazioak ezereztea; eta likidazio horien ordeztu beste batzuk jartzea, ebazpen honen hirugarren eta bosgarren oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

#### Ur Horniduragatiko Tasa

- 223. epaia, 2009ko maiatzaren 14koa, kalkulua ordenantzan jasotako aukeren gainean egin beharri buruzkoa



Erreklamazio horretan, hau da auzigaia: berraztertze errekurtsoa ezetsi izana. Bahituraren gaineko alegazioak, ordainagiriaren kalkularen gainekoak, eta itzulketaren gainekoak aztertu dira.

Aipagarria da ezen, betearazte prozedurako fase honetan, Zergen Foru Arau Orokorreko (2/2005 Foru Araua, 2005eko martxoaren 8koa) 174.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, ezin da alegaziorik aurkeztu, ondorengo arrazoi tasatuak izan ezik... Beraz, funtsezkoa da zehaztea ea bahitzeko probidentzia zuzena den, eta ea premiamendu probidentziak izan ziren eta indarrean diren araei jarraituz jakinarazi ziren.

Premiamendu probidentziak jakinarazi ez izanaren alegazioari dagokionez, aztertu da bai horiek ez egin izana, bai saioak helbide batera (...zenbakia) edo bi helbidetara (... zenbakia eta ..... zenbakia) bidaltzeko eskakizuna. Jakinarazpenak egiaztatzen dituzten Correos konpainiaren zerbitzuko dokumentuetan ageri denez, Udalak .....(e)ko jabekideen izenean egin zituen saioak beti, .... finkara zuzenduta. Eta bi finka horietara egiten zen horniduran, interesdunek egindako aktari jarraituz, .... zenbakiko jabekideen komunitateak du ordaintzeko betebeharra; eta, jakinarazpenak egintzat ematen baldin badira jakinarazpen horiek tasa horretan alta emandako subjektu pasibo bakarrarentzat eraginak izan behar dituztenez, ... zenbakiko eta ... zenbakiko jabekideek.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 59. artikuluan jakinarazte ahaleginei buruz xedatuta dagoenez, *«jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta*

*aurrekoa ez beste ordu batean, berriz saiatuko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik*». Auzitegi Gorenak 2004ko urriaren 28an emandako lege doktrinako interpretazioari men eginez eskatzen den eran egin beharko da jakinarazte ahalegin hori. Hona hemen zer dioen Auzitegi Gorenaren lege doktrina horrek: «*Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 59.2 artikulua betearazte aldera, "beste ordu batean" esapideak zehazten du baliozkoa dela lehenengo jakinarazte ahalegina egin zen ordutik gutxienez hirurogei minutuko aldea duen edozein jakinarazpen*». Bada, jakinarazte ahaleginei buruzko xedapen horri jarraituz, egiaztatu da 2006ko ....ren ...(e)an emandako premiamendu probidentzia (.. zenbakikoa) jakinarazteko ahaleginak 2006ko ...ren ..(e)an eta ..(e)an egin zirela, 12:00etan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zela 2006ko maiatzaren 17an, hots, ez dira eskatutako eskakizun horiek bete; hortaz, jakinarazpena ez da egintzat ematen. 2006ko ....aren ..(e)an emandako .... premiamendu probidentzia jakinarazteko ahaleginak 2007ko ....aren ..(e)ko 11:00etan eta 23ko 12:00etan egin ziren, eta iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2007ko .....aren ...(e)an; hau da, aipatu 59. artikuluan eta hura interpretatzeko emandako lege doktrinan galdatutako eskakizunak bete ziren, eta egintzat ematen da jakinarazpena. 2006ko .....aren ....(e)an emandako ..... premiamendu probidentzia jakinarazteko ahaleginak 2006ko .....aren ...(e)ko 12:00etan eta 30eko 13:00etan egin ziren, eta iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2006ko .....aren ....(e)an; hau da, aipatu 59. artikuluan eta hura interpretatzeko emandako lege doktrinan galdatutako eskakizunak bete ziren, eta egintzat ematen da jakinarazpena. Horrenbestez, onartzen da .... zenbakiko premiamendu probidentzien jakinarazte ezaren alegazioa, eta alegazioa ezesten da .... eta ..... zenbakikoei dagokienez. Azken horiek jakinarazitzat ematen dira, eta ondorioz irmotzat eta onartutzat jotzen dira egindako jasotzeak, eta hortaz bahitura faseko aurka-egitearen eremutik kanpokotzat.

Premiamendu probidentziei buruzko alegazioa baietsi denez, egoki da aztertzea ea zuzenbidearekin bat datozen eginiko jasotzeak, interesdunak auzitan jarri dituenak. Kasu horretan aplikagarri den udal araudia Donostiako Udaleko Uren Udal Zerbitzuaren Arautegiko 79. artikuluan dago zehaztuta. Kontagailuen matxuretan, eta benetan eginiko kontsumoak jakiteko gainerako ezintasunetan, artikulua horrek ezartzen du kontsumoen batez besteko kalkuluei jarraituz faktura ditzakeela Udalak kontsumoak. Orobat, 40. artikuluan, kontagailuen jabeek kontagailuak behar bezala mantentzeko erantzukizuna dutela arautzen baitu. Eta arautegi horretako 80. eta 86. artikuluetan, eta Diru Bilketako Udal Ordenantzako 8. artikuluan, fakturazio orokorra eta akatsen zuzenketakoa arautzen baitituzte, hornidurako aldien arabera denbora zatituta.

Uren Zerbitzuaren Arautegiak, 79. artikuluan, kontsumo zenbatetsiei buruz, hau dio: *Benetan izandako kontsumoa zein den jakitea ezinezkoa bada, [...] kontsumoaren fakturazioa, aurreko urtean denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da; alabaina, neurketa horiek eskura izango ez balira, aurreko sei hilabeteetan izandako kontsumoaren batez besteko aritmetikoaren arabera likidatuko dira fakturak.*

Txostena eskatu zitzaion Zerga Ikuskatzailtzako buruari, eta 2009ko ....ren ...(e)an ondorengo txosten hau eman zuen, Donostiako Udaleko irakurketa zenbatespenei buruz: *Udaleko uren zerbitzuaren arautegiak ezarria du, 79. artikuluan, benetan egindako kontsumoa jakiterik ez dagoenean kontsumoak zenbatesteko erabili beharreko prozedura.*

Artikulu horretan, irizpide hauek xedatu dira: A) *aurreko urtean denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da; alabaina, neurketa horiek eskura izango ez balira, aurreko sei hilabeteetan izandako kontsumoaren batez besteko aritmetikoaren arabera likidatuko dira fakturak.* B) *Aurreko pasartean aipatzen den batez bestekoa lortzeko datu historikorik ez dagoen kasu haietan, kontsumoak aurreko aldietan ezagutzen*

zaizkion kontsumoen batez bestekoa eginez zehaztuko dira. Hori ere ezinezkoa izango balitz, kontagailuaren kapazitate nominala eta hilean hogeita hamar orduko erabilera izango balu izango litzatekeen kontsumoaren arabera fakturatuko da.

Aztergai dugun kontagailuaren kasuan, geldirik izan zen 2001eko 4. hiruilekotik 2006ko 2. hiruilekoraino. Ez zegoen aurreko aldietako kontsumoen daturik; beraz, irakurketen zenbatespena egin zen, hondar metodoa erabiliz. Aipatzekoa da, dena dela, erabilitako hondar metodoa ez zela arautegian zehaztutakoa izan: «kontagailuaren kapazitate nominala eta hilean hogeita hamar orduko erabilera izango balu izango litzatekeen kontsumoaren arabera fakturatuko da», baizik eta zenbatespena egin da pertsona bakoitzak hilean duen batez besteko kontsumoa erabiliz. Batez besteko hori  $5 \text{ m}^3$  zela zenbatetsi zuen Zerga Ikuskatzailtzako Zerbitzuak. Eta hori bera da Espainiako Estadistika Erakundeak aldi horretarako eginiko zenbatespena. Erakunde horren arabera, kontsumoa  $164 \text{ m}^3$  zen biztanleko eta eguneko; hala, bada, hilean 4.920 litro lirateke, hau da,  $4,9 \text{ m}^3$ .

Arautegian jasotako arauari jarraituz ez kalkulatzeko arrazoia hau da: zenbatespena egiteko kontagailuaren kapazitate nominala dela eta, berdin erabiltzen da kontagailu horri lotuta etxebizitza bakarra badago edo hainbat etxebizitza badira. ...en kasuan, kontagailuari lotuta 36 etxebizitza daude, guztira 84 pertsona erroldatu (zenbatespena egiteko unean jasotako datuek diotenez). Kalkulua egitean kontagailuaren kapazitate nominala erabili izan balitz, zenbatespena txikiegia litzateke, ageri denez: 25 mm-ko kontagailuaren kapazitate nominala:  $3,5 \text{ m}^3 / \text{ordu}$ . Arautegiak proposaturiko zenbatespena: orduko  $3,5 \text{ m}^3 * \text{hilean } 30 \text{ ordu gehienez} * 3 \text{ hilabete} = 315 \text{ m}^3 / \text{hiruhileko}$ . Zerbitzuak eginiko zenbatespena honako hau da (pertsonako eta hileko  $5 \text{ m}^3$ -ko kontsumoa hartuta): pertsonako eta hileko  $5 \text{ m}^3 * 84 \text{ pertsona} * 3 \text{ hilabete} = 1.260 \text{ m}^3 / \text{hiruhileko}$ . Ohituraz, Udalak azken irizpide horrekin egiten ditu zenbatespenak (pertsonako eta hileko  $5 \text{ m}^3$ -ko kontsumoa hartuta).

*Kontuan izanik zein izan diren komunitate horren geroztiko kontsumoak, ageri da eginiko zenbatespena gehiago egokitzen zaiola errealitateari, araudia aplikatuzetik eratorritakoa baino:*

*(Eginiko irakurketen laburpena, irakurketen kudeaketako programa:)*

*Azken bi urteko batez besteko kontsumoa ondorengo taulan ageri da (Valentziako ur sistematik ateratako irakurketen laburpena):*

*Aldia eta m<sup>3</sup>-ak: 2007ko urria: 260 m<sup>3</sup>. 2007ko abendua-azaroa: 482 m<sup>3</sup>. 2008ko urtarrila: 476 m<sup>3</sup>. 2008ko otsaila: 334 m<sup>3</sup>. 2008ko martxoa: 291 m<sup>3</sup>. 2008ko apirila: 344 m<sup>3</sup>. 2008ko maiatza: 309 m<sup>3</sup>. 2008ko ekaina: 311 m<sup>3</sup>. 2008ko uztaila: 281 m<sup>3</sup>. 2008ko abuztua: 246 m<sup>3</sup>. 2008ko iraila: 306 m<sup>3</sup>. 2008ko urria: 300 m<sup>3</sup>. 2008ko azaroa: 307 m<sup>3</sup>. 2008ko abendua – 2009ko urtarrila: 712 m<sup>3</sup>. 2009ko otsaila – martxoa: 1.128 m<sup>3</sup>.*

*Aldiak, guztira: 16. Kontsumoa, guztira: 6.087 m<sup>3</sup>. Hileko kontsumoa, batez beste: 380,43 m<sup>3</sup>. Hiruhileko kontsumoa, batez beste: 1.141,31 m<sup>3</sup>.*

Horrenbestez, aipatu ditugun xedapenetan oinarriturik, jotzen dugu ez datorrela zuzenbidearekin bat uren ordainagiriaren kalkulua, pertsonako eta hileko 5 m<sup>3</sup>-ko zenbatespenean oinarritua. Izan ere, ez dago horrela araututa Uren Zerbitzuaren Arautegian. Jakinarazten dugu zuzendu beharreko zorraren zenbatekoa, premiamendu probidentziei dagokiena, bi urtean batez beste eginiko kontsumoan oinarriturik kalkulatu behar dela.

5.442,03 euro itzultzeko eskaerari dagokionez, komunitateari itzuli beharreko zenbateko zehatzaren zenbatespena Udalak egingo du, premiamendu probidentziaren ordainagiriari dagokien zorra kalkulatu, bi bat urtean batez beste eginiko kontsumoan oinarriturik.

Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, eta azaldutako xedapenak betez, honako hau erabaki da: 2001eko ekitalditik 2005ekora bitartean Ur eta Saneamendu Tasaren ordainagiria bahitzeko diligenza berraztertze

errekurtso ezetsi izanaren kontra, 5.442,03 euro itzultzearen ...ko jabe elkartek aurkeztutako erreklamazioa zati batean baiestea; eta premiamendu probidentzia horietako ordainagirien ordainketa desegokia itzultzeko eskubidea onartzea, zenbateko hori kalkulatzeko oinarritzat bi urte baino gehiagoan batez beste egindako ur kontsumoa erabili beharko delarik.

#### Zaborrak Biltzeagatiko Tasa.

- 320. epaitza, 2009ko ekainaren 23koa, tasa ordaintzera behartua maizterra ez dela dioena.

Erreklamazio horretan, hau da auzigaia: zaborren tasa itzultzeko eskaera ezetsi izana, 2005ean etxebizitza horretako maizter izateari utzia ziolako.

Betearazte prozeduraren fase honetan, erreklamazioa egin duen alderdiak Zergen Foru Arau Orokorreko 174.3 artikuluan zehaztutako aurkatze arrazoi tasatuak baizik ezin ditu erabili aurka egiteko. Ondorioz, eta Zergen Foru Arau Orokorreko 108. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 59. artikuluan jakinarazteko ahaleginei buruz xedatutakoa betez, egiaztatu da premiamendu probidentzia jakinarazteko ahaleginak egin zirela 2006ko azaroaren 20ko 11:00etan eta 21eko 12:05ean; eta ez dagoela jasota prozedura jarraitu zenik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzeko iragarkiarekin. Ondorioz, aipatu artikuluetan galdatutako eskakizunak bete izana egiaztatu ez denez, ez da jakinarazitzat jotzen premiamendu probidentzia; eta, beraz, onartzen da bahitura diligentziaren kontrako alegazioa.

Ikusita ezen, Zaborrak Biltzeko Zerbitzua Emateagatiko Tasak arautzeko Ordenantza Fiskaleko 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz, honako hauek direla tasaren subjektu pasiboak, zergaduntzat: *etxebizitzak okupatzen edo gozatzen*

*dituzten pertsonak. Eta ordenantzako 6. artikuluan ordezkoen figura arautu da: Zergadunaren ordezkotzat subjektu pasibo dira ondasun higiezin jabeak. Hau da, artikulua horiek ikusita, adierazten dugu tasa ordaintzera behartua jabea dela, eta interesduna beti maizter izan denez, 2006an ez zela tasa hori ordaintzeko betebeharra zuena. Ondorioz, baiesten da 2006ko ekitaldiko tasaren subjektu pasiboa ez izatearen alegazioa.*

Ikusita berrikusteko arautegia onartzen duen 41/2006 Foru Dekretuko (2006ko irailaren 26koa) 25. artikulua, ondorengo arrazoi hauek jasotzen baititu sarrera desagokiak itzultzeko eskaerak onartzeko: *c) Errekurtso administratiboen edo erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenen indarrez. Eta kontuan izanik alegazio guztiak baietsi direla, eta jo dela zuzenbidearekin bat ez datozela eginiko ordainagiria eta tratatutako bahitura, erabaki da itzulketa eskaera baiestea.*

Ondorioz, egiaztatu eta jasotako egitateekin bat, eta azaldutako xedapenak eta doktrina betez, honako hau erabaki da: zergen tasako ordainagiriko 70,66 euroen bahitura itzultzea berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka egindako erreklamazioa baiestea; eta zenbateko hori itzultzea.

### **3. ALDE PERTSONALAK ETA LAN KARGA**

Auzitegiko kideak Udaletik kanpokoak eta independenteak dira: Javier Herrero Aparicio, auzitegiko buru; eta Sofia Arana Landin eta Juan Santos Lopez Anton, auzitegiko kide soil. Beraz, argi dago auzitegiak funtzionamendu independentea duela.

Auzitegiko idazkaritzari atxikitako langile funtzionarioak direla eta, auzitegia eratu zenean (2005. urtean) izendatutako administrazio eta teknika arloko langile berberak dira: Finantza Zuzendaritzako Zerbitzu Juridikoan lan egiten duten bi funtzionario, Zerbitzu Juridikoko burua (auzitegiko idazkaria) eta administrari bat.

Bilerak berdin egiten dira, hamabostean behin.



Auzitegiaren lan karga auzitegiko idazkaritzak darama. Urte hauetako guztietako maila bertsuan dirau lanak. Izan ere, lan propioak ez ezik (erreklamazioak izapidetzea, adibidez), epaitzen proposamen guztiak idatzi ere egiten dira, bai eta zerga ordenantzak aldatzeko proiektuei buruzko txostenak ere.

Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udalaren Araudiko 36. artikuluan erreklamazioak ebazteko epea gehienez ere sei hilabete izango dela jartzen du, eta Zergen Foru Arau Orokorrak, orain indarrean denak, urtebete jartzen du prozedura hori egiteko gehienezko epeztat.

Alde horretatik, Auzitegiak Udalari jakinarazi nahi dio ez dela erreklamazioak ebazteko den sei hilabeteko epe hori betetzen, eta irizten dio, agian, legeak jartzen duen gehienezko epera egokitu daitekeela udalaren epea ere.

Era berean, esan dezagun erreklamazioa jartzen den egunetik aurrera kontatzen dela epe hori. Baina, espedientea Auzitegiaren Idazkaritzan entregatzen den egunari begiratu gero, prozeduraren batez besteko epea hilabete da, zerga kontuetan, eta hiru hilabete trafiko isunetan.





#### **4. ALDE MATERIALAK ETA INFORMATIKOAK**

Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzak udaletxean jarraitzen du, nahiz eta hamabostean behingo bilerak Udalaren beste lokal batean egiten diren (helbidea: Agirre Miramon kalea, 4, behea).

Auzitegiko kideek ordenagailutik eskuratzen dituzte erreklamazioen espediente osoak. Izan ere, zirkulazioko zehapenen espedienteak osorik digitalizatuak ditu Isun Zerbitzuak; eta gainerako erreklamazioei dagokienez, auzitegiko idazkaritzak digitalizatu egiten du erreklamazioa aurkezten duen idazkia.

Aurka egiteko bide hau erabili nahi dutenek paperean aurkeztu behar dituzte erreklamazioak, arautegiko 26.3 artikuluan zehazturikoari jarraituz; halaxe izango da, harik eta informatikako eta informazioko baliabide egokiak garatzen diren arte (ekonomia eta administrazio erreklamazioak bide telematikoz aurkezteari buruz Zergen Lege Orokorra garatzeko emandako EHA/2784/2009 Aginduari men eginez). Ordu arte, erreklamazioark paperean aurkezteko prozedura mantenduko da, arautegiko 26.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Isun Zerbitzuak egingo ditu espedienteak.

Auzitegiari buruz udal webgunean ageri den informazioaz den bezainbatean, dagoeneko atgeri dira erreklamazioak egiteko jarraibideak, erreklamazioetan aplikatu beharreko arautegia, eta urtez urteko oroitidazkiak.

## 5. AURKEZTURIKO ERREKLAMAZIOAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1. artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio *«udal eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreraren kudeaketa, kitapen, bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea»*.

Administrazioarekiko diru erreklamazio horien garrantzia, honetan datza: interesatuek gero bide judizialera iristeko behar duten tresna dela.

2009an, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, ondoren zehaztuko ditugun erreklamazio hauek sartu dira. Kopuruaren, erreklamaturako kontzeptuen eta aurkezte dataren arabera sailkatu ditugu.

Eta nabarmentzen dugu, Udalak jakin dezan, beste auzitegi batzuekiko konparazioen grafikoak dakartzan Bilboko Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren txosteneko datuen arabera, ezen Donostian aurkeztutako erreklamazio kopurua, biztanleko, Madrilgoaren berdina dela.

2009an aurkeztutako erreklamazioak	
Zergak	47
Zehapenetako bilketa	1.114
<b>Guztira</b>	<b>1.161</b>

<b>Zergak</b>	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	10
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	1
Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga	8
Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga	4
Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga	11
Jabetza tasa	3
Zerbitzu tasa	9
Baimenen tasa	1
<b>Guztira</b>	<b>47</b>


<b>Zehapenetako bilketa</b>	
Zirkulazioko zehapenak	1107
Ingurumeneko zehapenak	2
Hirigintzako zehapenak	5
<b>Guztira</b>	<b>1.114</b>

## 6. IZAPIDETUTAKO ERREKLAMAZIOAK

Grafikoetan nabarienez, 2009. urtean 1.161 erreklamazio aurkeztu dira, 598 erreklamazio izapidetu, eta 630 erreklamazio ebatzi.

Oroitidazkiko datuen multzotik ondorioztatzenenez, urtero egiten dira aurreko hurrengo urteari dagozkion erreklamazioak izapidetu eta ebatzeko lanak. Hartara, 2008. urteko oroitidazkian jasoenez, 2008ko abenduaren 31n, urte

hartako 480 erreklamazio zeuden ebazteke, eta haietatik 330 zeuden izapidetu gabe ekitaldi honetan.



## 7. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK


Alde horretatik, zerga arloko erreklamazioak ebaztearen azterketa espezifikoan, auzitegiak eutsi egiten dio sortu zenetik —2005eko ekainetik— izandako irizpideari, hots, zerga egitatei buruz eta zirkulazioko zehapenak biltzeko prozedurari ez dagokion eskubide publikoko edozein diru sarrerari buruz eginiko erreklamazioak berehala ebazteko irizpideari.

Erreklamazio horiek berehala ebazten dira; eta zirkulazioko zehapenetako nahitaezko diru bilketako prozedurei dagozkienak, iritsitako ordenari jarraituz izapidetzen dira, ordena hori baita legez errespetatu beharrekoa, prozedura horiek ebazteko orduan.

Zerga gaietako erantzunaren berehalakotasun hori egiaztatu da. Hartara, 2009. urtean 49 zerga erreklamazio aurkeztu ziren eta horiei buruz 49 epaitza eman ziren; 3 epaitza, ebazteke geratutako aurreko urteko erreklamazioenak ziren. Abenduaren 31n hiru erreklamazio geratu ziren ebazteke.

Erreklamazioak izapidetu eta ebazteko lanari gagozkiola, espediente osoak idazkaritzan entregatzen dituztenetik hasten da. Garrantzizkoa da erreklamazioak ebazteko lana neurtzea, izan duten izapidetzearen argitan. 2009an, 598 erreklamazio izapidetu dira, eta 630 ebatzi. Eta ebatzitako erreklamazioetatik, 480 dira ebazteke zeuden 2008. urteko erreklamazioak, eta 150 dira 2009. urtekoak.

Eta estatistika egitean auzitegiak dituen bi urte eta erdiko aldi osoaren ikuspegia hartzen badugu, aurkeztutako 3.604 erreklamazioetatik, 2009ko abenduaren 31n, 2.593 erreklamazio zeuden ebatzita (aurkeztutako erreklamazioen % 71,95), 118 erreklamazio zeuden ebazteke (aurkeztutakoen % 3,27), eta 893 zeuden izapidetzeke (aurkeztutakoen % 24,78).



Grafiko horretatik ondorioztatzen da auzitegiaren lana beti izapidetze eta ebazte erritmo bertsuan egin dela, 2005ean izan ezik. Izan ere, urte hartako ekainean eratu zen auzitegia, eta horrenbestez ebazte lan gutxiago egin zuen.


## 8. EBAZTEKE DIREN ERREKLAMAZIOAK

2009ko abenduaren 31n, 2009. urteko 1.011 erreklamazio geratu dira ebatzi gabe.

Urtarrilaren batetik abenduaren 31 arte, 1.641 erreklamazio ziren ebaztekoak. Haietatik 480 ziren 2008. urtetik ebazteke zeuden erreklamazioak, eta 1.161 ziren 2009an aurkeztutako erreklamazioak.

Guztizko horretatik, 893 espediente zeuden Isun Zerbitzuak izapidetzeke (kudeaketa organo horrek bidaltzen du espediente osoa auzitegira), eta 118 espediente zeuden izapidetuta eta auzitegiko idazkaritzari entregatuta, analizatzeko eta hartu beharreko ebazpena idazteko.

Auzitegia eratu zenetik 2009ko abenduaren 31 arte egindako lanaren zenbaketa osoa hartuta, denbora horretan aurkeztutako 3.604 erreklamazioetatik, 2.593 espediente ebatzi dira, hau da, erreklamazioen % 71,95ek badu epaitza.





## 9. EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN


Zerga arloko erreklamazioetan, kopuru berdintsua dute baiesteko epaitzek eta ezestekoek.

<b>Zerga arloko epaitzak zein aldetarantz eman diren</b>				
	Baiestea	Zati bat baiestea	Ezestea	Guztira
<b>Ekonomia Jardueren gaineko Zerga</b>	1	-	1	2
<b>Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga</b>	7	1	1	9
<b>Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga</b>	4	3	2	9
<b>Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga</b>	3	1	1	5
<b>Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga</b>	2	-	9	11
<b>Jabetza tasa</b>	1	1	-	2
<b>Zerbitzu tasa</b>	3	2	4	9
<b>Baimenen tasa</b>	-	-	2	2
<b>Guztira</b>	<b>21</b>	<b>8</b>	<b>20</b>	<b>49</b>



<b>Zirkulazioko zehapenak kobratzeari dagozkion epaitzak zein aldetarantz eman diren</b>			
	<b>Premiamendua</b>	<b>Bahitura</b>	<b>Guztira</b>
Baiestea	82	3	85
Zati bat baiestea	10	1	11
Ezestea	426	39	465
Onartezina	9	-	9
<b>Guztira</b>	<b>527</b>	<b>43</b>	<b>570</b>

Zirkulazioko zehapenen nahitaezko diru bilketako prozedurako erreklamazioetan, ezestekoak dira erreklamazio gehienetako epaitzak.


Grafiko honetan ageri da emandako epaitzak zein aldetarantz izan diren: onetsiak, zati batean onetsiak, prozesuz kanpoko ordaina, ezetsiak eta onartezinak. Multzo horietako bakoitzaren kopurua zehaztu da, urte bakoitzean.




Hurrengo grafikoetan, urte horietako epaitzen noranzkoen arteko aldeak bistaratzeko dira.



### EPAIEK DAKARTEN ERABAKIA (2008)



### EPAIEK DAKARTEN ERABAKIA (2009)



## 10. AUZITEGIAREN IRIZPIDEAK

Xede berarekin aurkeztutako erreklamazioak ebaztean, auzitegiak, aurreko ebazpenetan adierazitako irizpideei lotzearen Konstituzio doktrinari jarraituz, *ratio decidendi* berbera erabili du, zuzenbideko oinarrietan zehaztuta. Eta zuzenbideko oinarri horiek erabiltzen jarraitzeko asmoa du, oraingoz, aurkezten zaizkion kasuetan egitateen edo zuzenbidearen funtsezko aldaketarik izan ezean; izan ere, zuzenbideko oinarri horiek zuzenbidearen araberakoak dela baiteritzogu.

Aurka egin zaien kontzeptuak zehaztuta dituzten ebazpenetan maiz agertu den irizpideetako bat ondorengo hau da: zirkulazioko zehapenetan udal ekintza preskribatu dela onartzea, betearazte prozeduraren berrabiarazteak gainditua duenean Zirkulazioari buruzko 339/1990 Errege Dekretu Legegintzakoko 81. artikuluan ezarritako urtebeteko epea.

## 11. AURKEZTUTAKO GATAZKEI BURUZKO IRUZKINAK


Auzitegi honetan aurkezten diren gatazkak, ez dira aurkezten interesatuek erabaki dutelako bide hau hartzea, berraztertze errekursoarekin Udalarengana jo beharrean; hala balitz, berraztertze errekursoak ebazten dituzten udal organoen erabakiak ordeztu dituen organo bihurtuko litzateke auzitegi hau. Baina ez da hala, zeren eta udal Administrazioarekiko diru erreklamazio guzti-guztiak berraztertze errekurtsua ezetsi delarik egiten dira, direla zehapenak betearazteko prozedurenak, edo direla udal zergenak.

Lan kargak handia izaten jarraitzen du, izapidetzen diren zehapenak betearazteko prozeduretan.

Grafikoetatik ondorioztatzen da, zerga erreklamazioetako gatazkei dagokienez, erreklamazioak udal zerga guztiei buruzkoak izan direla: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Ekonomia Jardueren gaineko Zerga; Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga; Ibilgailuen gaineko Zerga; Uraren Tasa, TAOaren Tasa, Bide Publikoko Mahai eta Aulkien Tasa; eta irekitze lizentzien tasak.

Emandako epaitzen diru ondorioek, urte hauetan guztietan, erreklamatuak zenbatekoen ezeste maila bertsuan dira. Hala ere, kopuru hori handiagoa da 2008. eta 2009. urteetan. Izan ere, Eraikuntzen gaineko Zergako hobarien eskarrietan ezetsitako diru zenbatekoak oso handiak ziren.

	<b>2006ko epaitzak</b>	<b>2007ko epaitzak</b>	<b>2008ko epaitzak</b>	<b>2009ko epaitzak</b>
<b>Erreklamatuak</b>	220.821,88	157.116,52	1.813.648,55	1.075.752,44
<b>Baietsiak</b>	111.583,95	67.148,51	87.257,49	143.556,35



## 12. UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

Ondorengo informazioa eta ondorioak, Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek egin ditu, *Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico-Administrativos Municipales* izenburuko txostenean.

*Ebazte tasa* delakoak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, urtero, aurkeztu diren erreklamazioen aldean (urteko ebatziak / urteko sartuak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du sartutakoak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, sartutakoak baino gutxiago.

*Eraginkortasun tasa* delakoak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, erreklamazio guztien aldean (urteko ebatziak / urteko guztiak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du urteko erreklamazio guztiak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, erreklamazio guztiak baino gutxiago.

*Ebazteke dagoenaren tasa* delakoak neurtzen du zenbat urte beharko liratekeen urte bukaeran ebazteke diren espedienteak ebazteko (abenduarien 31n ebazteke diren espedienteak / urteko ebatziak).

*Ebazte abiadura* delakoak neurtzen du zenbat urte behar diren espediente bat ebazteko (urteko guztiak / urteko ebatziak).

#### DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO ERREKLAMAZIOAK

	<b>ERREKLAMAZIOAK</b>	<b>2009</b>	<b>2008</b>	<b>2007</b>	<b>2006</b>
1	Urtarrilaren 31n ebazteke	480	390	438	530
2	Urtean aurkeztuak	1.161	636	520	557
3	Urteko guztizkoa (1+2)	1.641	1.026	958	1087
4	Urtean ebatziak	630	546	568	649
5	Abenduaren 31n ebazteke (3 - 4)	1.011	480	390	438

#### DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANALISIA

<b>Urtea</b>	<b>Ebazpena</b>	<b>Eraginkortasuna</b>	<b>Ebazteke dagoenaren tasa</b>	<b>Abiadura</b>
2006	116,52	59,71	0,67	1,67
2007	109,23	59,29	0,69	1,69
2008	85,85	53,22	0,88	1,88
2009	54,26	38,39	1,60	2,60



## 2008KO ZIFRAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

2008	Ebazpena (%)	Eraginkortas una (%)	Ebazteke dagoenaren tasa	Ebazte abiadura
<b>Granada</b>	107,56	63,91	0,57	1,57
<b>Madril</b>	110,62	72,74	0,37	1,37
<b>Malaga</b>	128,15	83,13	0,20	1,20
<b>Donostia</b>	85,84	53,21	0,87	1,87
<b>Valentzia</b>	107,74	74,33	0,34	1,34
<b>Bartzelona</b>	142,30	75,79	0,31	1,31
<b>Las Palmas</b>	100,31	58,86	0,69	1,69
<b>Bilbo</b>	84,36	38,89	1,57	2,57

Mila biztanleko urtean aurkeztutako erreklamazioen kopurua konparatzen da, dagokion urteko urtarrilaren lean udal bakoitzak duen biztanle kopurua hartuta, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako datuekin.

### AZTERKETA KONPARATUA: erreklamazioak, 1.000 biztanleko

	2006	2007	2008
Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle
<b>Granada</b>	3,57	1,40	1,45
<b>Madril</b>	3,25	2,85	3,89
<b>Malaga</b>	1,16	1,21	1,15
<b>Donostia</b>	3,04	2,84	3,45
<b>Valentzia</b>		0,61	0,74
<b>Bartzelona</b>		0,28	0,18
<b>Las Palmas</b>		1,08	0,84
<b>Bilbo</b>	4,15	6,54	6,24

### 13. ESKATUTAKO IRIZPENAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1.1 artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio zerga ordenantzen proiektuei buruz irizpenak ematea.

2009ko urriaren 13an, Donostiako Gobernu Batzarrak zerga ordenantzen proiektutzat onartu zuen 2009rako zerga ordenantzak aldatzeko hainbat irizpen, eta Ogasuneko zinegotzi eskuordeak auzitegiari eskatu zion proiektu horiei buruzko irizpena.

Proposamenek zergapetze tasa aldatzea edo zerga kuotak aldatzea dakarte, ondorengo zerga hauek direla eta:

Ondasunen gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, Zaborrak Biltzeagatiko Tasa, Ur Horniduragatiko Tasa, Saneatze Zerbitzuagatiko Tasak, Bide Publikotik Ibilgailuak Kentzeagatiko Tasa, Tranbia Konpainiarekiko Garraio Publikoaren Zerbitzuagatiko Tasak, Kaleak Kategoriaren araberako Sailkapena.

Orobat, arau proposamen bat aurkeztu zen, telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko tasak ezartzearen.

Auzitegiak, 2009ko urriaren 15ean eginiko bileran, eskatutako irizpenak eman zituen. Aldeko irizpenak izan ziren, proposamen guztietarako.

## 14. ONDORIOAK

Azterketa honetatik nabari da auzitegi honek jarraitzen duela auzitegia ezartzearekin lortu nahi zen helburua betetzen: herritarren zerbitzura diharduen doako tresna bat izatea, zuzenbideko profesionalek esku hartzea eskatzen ez duena; eta Udalarentzako hobekuntza elementu bat izatea, eguneroko kudeaketa egitean ihes egiten dioten okerreari antzemanez.

2009an eginiko estatistiketan, bere horretan dirau datu honek: gatazka gai masibo izaten jarraitzen dute zirkulazioko zehapenekin eginiko betearazte prozeduren erreklamazioek.

Oraindik ere informatikako dema dugu, auzitegiko idazkaritzarako, prozeduraren izapideak informatizatzea, Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Araudia eta 1671/2009 Errege Dekretua (2007ko ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoz erabiltzearena) onartu zirela eta.

Informatizatzea lortuz gero, hurrengo aldira iritsiko ginateke: interesatuek baliabide informatikoak erabili ahalko lituzkete, erreklamazioak aurkezteko, eta auzitegiko idazkaritzak sistema horren bidez jakinarazi ahal izango lituzke izapide, ebazpen eta epaitzak.

Donostia, 2010eko apirilaren 16a.

Auzitegiko idazkaria

Auzitegiko lehendakaria

Izpta.: Maite Amunarriz Yeregui.

Izpta.: Javier Herrero Aparicio.